

# PEZETETATIK EUROETARA

KULTURA

2024-EKO MAIATZAREN 31-A



## 166 PEZTATIK 1€-RA

Egokitu behar izan al duzue inoiz beste txanpon batera? Ba hori gertatu zen duela zenbait urte Europan. Txikiak ginetetik gure guraso edo ta aiton amonak esan ohi digutenez ez zen aldaketa erraza eta azkarran izan, horri buruz gehiago jakiteko hainbat elkarrizketa dakarkizkigu.

**Maddi Uribesalgo, Iraia Galarraga eta Leire Fuentes**

Hasieran Europako herrialde bakoitzak bere kabuzko dirua erabiltzen zuen, ekonomiarako eta beste zenbait gauzetarako ez zuten batasunik. Urte batzuetan zehar, herrialde bakoitzak autonomia bat zuen baina 1952 urte inguruan Europako zenbait herrialde batu egin ziren: Alemania, Frantzia, Italia, Herbehereak, Belgika, Espainia, Grezia, Portugal, ... hauek gaur egungo Europa Batasuna sortu zuten.

Elkartu ostean ekonomiari heldu zioten eta beraz Europa osoan txanpon berdina sortzea erabaki zuten, euroa deritzo.

Hortik aurrera gutxinaka gutxinaka herrialde guztietan txanpona aldatzen joan zen, 2002ko urtarrilaren 1-etik hurrengo otsailak 28 arte izan zen eraldaketa.



## HERRITARREN BIZIPENA

Aldaketa jasan zuten hainbat pertsonekin kontaktuan jartzea lortu dugu. Haiek, beraien iritzi pertsonala heman digute elkarrizketa baten bidez.

Hasteko, Jose Miguel Akutain eta Pakita Ziarrustarekin hitz egingo dugu. Beraiek herritar normal batzuk ziren aldaketa hau gertatu zen momentuan. Horregatik, herritar batzuek bizitako ikuspuntu pertsonala emango digute elkarrizketa baten bidez. Modu honetara, pertsona guzti hauen azalean jartzeko aukera izango dugu.

Jose Miguel eta Pakitak esan dutenez, orokorrean ez zitzaien kostatu egin euroetara ohitzea, nahiz eta gaur egun, gauza batzuk oraindik ez dituzte oso barneratuta eduki.

Ilido beretik, aldaketa horri aurre nola egin zien adierazi digute: **"Aldaketa hori egin zenean, txartel moduko bat banatu ziguten. Txartelaren aurpegi bat pezetetan zegoen eta beste bat euroetan. Horrela, errazagoa egiten zitzaigun lekuetara joaten ginenean kalkuluak ateratzea, bestela, ez genekien zenbat ordaindu behar genuen."**

Bikote honen arabera, bankura joaten ziren bakoitzean, prozesu berdin-berdin izaten zen.

Hau da, pezetan ordez euroetan ematen ziren dirua, baina dirua ateratzeak ez zuen inolako aldaketarik jasan.

**"Prozesu hau oso azkarra izan zen, urte batean aldaketa egin zegoen."** nabarmendu dute hasieratik.

Pakita eta Joseren arabera pezetak birbaloratu egingo dira, izan ere, urte askotako txanponak dira eta gaur egun oso zaila da horrelakoak aurkitzea. **"Aldaketa egin eta gero, pezeta guztiak bota genituen, etxean edukitzea alferrekoa izango zela uste genuen."** aitortu dute.



## NOLA BIZITU ZIREN GAUZAK BARRAREN ATZETIK?

"Aldaketa egitea ez zitzaigun oso zaila egin, baina zailtasunak izan genituen guk tabernan bi txanponak eduki behar genituelako: pezetak eta euroak" dio Oskarrek.

Horren ondorioz gauzak 66 zentimo garestitu ziren, era berean fakturretan hori nabarmentzen zela azaldu digu.

"Bai bai, bizitza orokorrean garestitu egin zen, adibidez ostalaritzan gauzak asko garestitu ziren. Baita ere fruterietan, arrandegietan, okindegietan eta abar. Negozio guztiei antzeko egoera gertatzen zitzaigun" azpimarratu du lehengo tabernariak.

Ondorioz, dena garestitu egin zen. Negozioa eta orokorrean bizitza. Baina aurre egitea ez zen zaila izan.

€		1 € = 166,386 ptas		Campana de Comunicación EURO		
0,01	0,02	0,05	0,10	0,20	0,50	1
1,25	1,50	1,75	2	2,25	2,50	2,75
3	3,25	3,50	3,75	4	4,25	4,50
4,75	5	5,25	5,50	5,75	6	6,25
6,50	6,75	7	7,25	7,50	7,75	8
8,50	8,75	9	9,25	9,50	9,75	10
11,50	11,75	12	12,25	12,50	12,75	13
15,50	15,75	16	16,25	16,50	16,75	17
21,50	21,75	22	22,25	22,50	22,75	23

Hortaz, aldaketa hau gertatu zenetik, hainbat pertsonak aurrera erraz egin dute este beste batzuek aldiz, aldaketa jasan harren, buruan ez da horrela izan, eta urte guzti hauetan zehar horretan lanean ari dira.



ELKARRIZKETA:

